


txinpart


hautzaro ikastolako aldizkaria

2001 Abendua • 21. zenbakia

HORRA, HORRA!



GURE OLENTZERO...



Aurre matrikula epea, laster irekiko da.

Agur bero bat

Con el Nuevo Año, comienza la pre-matrícula para el próximo curso.

Un saludo

HAURTZARO IKASTOLA



DENON ESKURA

AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	6
GURASOOK JAKIN DEZAGUN.....	26
GU ERE KAZETARI	30
NAHASTE BORRASTE	37



1. HIRUHILEKO IRTEERAK

HH. ZIKLOA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H1	URRIAK 11	BASORA	INGURUA BEHATZEA
H.H1	URRIAK 18	BIDEGORRIA	AUTONOMIA LANTZEA
H.H2	URRIAK 17	DONOSTIRA	TXILLIDAREN "HAIZE ORRAZEA" ESKULTURA EZAGUTZEA
H.H2	URRIAK 22	TXARAKO BASORA	ENBORRAK, HOSTOAK ETA EZKURRAK BILTZERA
H.H2	URRIAK 25	ARISTIZABAL BASERRIA	SAGAR JOTZEN IKUSTEA
H.H3	URRIAK 4	POSTETXERA	GUTUNEKIN ZE GERTATZEN DEN IKUSTERA
H.H3	URRIAK 18	URKABERA	UDAZKENEKO EZAUGARRIAK BEHATZERA
H.H3	URRIAK 19	BIDEGORRIRA	HOSTO DESBERDINAK BEREIZTEA
H.H3	AZOROAK 23	BEASAINERA	TRENEZ IBILTZERA ETA LAGUN BERRIAK EZAGUTZERA

LH 1. ZIKLOA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
1. MAILA	IRAILAK 27	ZINEMARA	
1. MAILA	URRIAK 10	ARISTIZABAL BASERRIRA	SAGARDOA EGITEN IKUSTEA
1. MAILA	URRIAK 26	KARRIKA ETA ERGOINERA	AUZOAK EZAGUTZEA
1. MAILA	IRAILAN URRIAN	ARRAGUA, UGALDETZO, ELIZALDE ALTZIBAR, ITURRIOTZERA	AUZOAK EZAGUTZEA
2. MAILA	IRAILAK 27	ZINEMARA	
2. MAILA	URRIAK 26	SORONDORA	BASERRIAREN INGURUAK BEHATZEA

LH 2. ZIKLOA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
3. MAILA		SAGARDOTEGIRA	
3. MAILA		ZINEMALDIRA	
4. MAILA		ZINEMALDIRA	
4. MAILA		ARKALEKO HARRIETARA	OIARTZUN EZAGUTZEA
4. MAILA		BIANDITZ-ARITXULEGIA ANTON URTEGIA	OIARTZUN EZAGUTZEA
4. MAILA	AZAROAK 28	UDALETXERA	ALKATEAREKIN SOLASALDIA
4. MAILA		OZENTZIOKO BASELIZARA	OIARTZUN EZAGUTZEA




LH 3. ZIKLOA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 6. m	IRAILAK 18	OIALEKURA	HARREMANAK
LH 5. m	IRAILAK 20	KARRIKA-ERGOIENERA	ELKAR EZAGUTZA: HARREMANAK
LH 5-6 m	IRAILAK 24	DONOSTIARA: ZINEMALDIA	KULTUR EKINTZETAN PARTE HARTZEA
LH 5. m	AZAROAK 5	DONOSTIARA: ZINEMA + ESKULTURAK	AUTOESTIMAREN LANKETA ETA INGURUKO ESKULTURAK EZAGUTZEA
LH 5-6 m	AZAROAK 28	TOLOSARA: TXOTXONGILOAK	KULTUR EKINTZETAN PARTE HARTZEA
LH 5. m	ABENDUAK 3	HERNANIRA: CHILLIDA-LEKU	ESKULTURGILE BATEN ARTE LANEAN SAKONTZEA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
I eta 2	IRAILAK 18	GORRITI GAZTELURA	GORPUTZ HEZKUNTZA: IBILALDI NEURTUA
I	URRIAK 18	IRUÑAKO PLANETARIUMERA	NATUR ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO HELBURUAK
I eta 2	AZAROAK 9	ON BIDE ZINEMARA FILMEA: GIRLFIGHT	ETIKA: BALOREEN LANKETA

MAILA	NOIZ	NORA
DBH 3	AZAROAK 9	ZINEMARA: LUCHA DE CHICAS
DBH 3 - 4	URRIAK 4	OIARTZUN - LESAKA MENDI ITZULIA
DBH 4	URRIAK 29	ZINEMARA: PABLO BOLA





2 URTEKO GELAK IKASTOLA BARRUAN

HAUEK BAI ARTISTAK!!

Blanca Auzmendi eta Belen Moreno ditugu. Bi ama, biak langile-eskuzabalak eta biak zein baino zein artistagoak. Azken urte hauetan euren haurren gelak apaintzen jardun dute. Sehasketan hasi ziren, ertainetan jarraitu eta azkenik 2 urteko gelei beren ukitua ematera sartu dira borondate osoz.



Aurten, 2 urteko haurrak ikastolan kokatu ditugu. Hobeto egongo diren esperantzaz egin dugu aldaketa eta espazioa txikien beharretara egokitu beharrean aurkitu gara, adibidez, gela barruan komunak jarritz.

Honekin batera, eta Belen eta Blanca jadanik lanean hasiak zirelarik, beharrezkoa ikusi genuen espazio guztiari beste "aire" bat ematea eta hori egiteko agindua eman zitzaizen biei. Argazkian ikusten duzun bezala, ipuin giroko lekua prestatu digute, haurrak pozik bizitzeko aproposa. Artistak izaki!

Blanca Auzmendi y Belen Moreno, madres de dos niños de 2 años han sido las encargadas de decorar las aulas y el pasillo que utilizan los niños de dos años. Con dibujos acertados y colorido muy vistoso, han sabido dar un "aire" nuevo a dicho espacio.



HEMEN GAUDE AURTENGO HIRU URTEKO NESKA MUTILAK

ELI ETXEBERRIA

AINARA Alkorta Lucero
JULEN Alonso Barbazan
JOSEBA Alvarado Delgado
ANE Arruti Salaberria
ANE De Juan Danborena
LARRAITZ Etxarte Beloki
MIKEL Etxebeste Gallardo
ESTITXU Fernández Urkia
MARKEL Galdos Cardeñoso
MATTIN Kazabon Cousillas
ARITZ Leonet Aranburu
JOSU Leonet Aranburu
YESSICA Lizarribar Rodriguez
IKER Mitxelena Ugalde
XABIER Ondaro Ezkurra
EIDER Tomé Etxeberria
HAIZEA Urkia Larrañaga
ARITZ Valderrama Crujeiras

ITZIAR LEKUONA

SARA Alberdi Oyarzun
ANE Cruz Oliden
JOKIN Dehesa Urkia
AITOR Duran Canelada
GARAZI Ezkerro Ameztot
UXUE Flamarique Martinez
IZAR Gaztelumendi Beristain
GOIATZ Goiria Mitxelena
DIEGO Hernández Martinez
MADDI Ibarburen Elosgi
IZARO Idarreta Cardona
NAGORE Iza Outeiral
GORKA Lekuona Claveras
JULEN Lizarraga Garmendia
OIHAN Mancisidor Otaegi
IKER Mujika Díez
ANE Sein Iriarte
IRATI Sein Iriarte
JUNE Urra Agirrezabala

ITZIAR ARBELAITZ

MADDI Agudo Lizaso
EKAIN Alberdi Oiarzabal
JOSU Apezetxea Otegi
ENEKO Artola Telleria
ALAITZ Cachafeiro Torrubia
UDANE Claver Roma
MAIALEN Claver Roma
IMANOL Elizondo Gelbenzu
LARRAITZ Etxebeste Lizaso
DANIEL Gonzalez Martinez
LANDER Isasa Zufiria
IORITZ Labandibar Sagarzazu
ANE Lizarraga Etxeberria
UNAI Loiarde Miguel
OIER Lopez Jimeno
MARÍA Rodriguez Perales
EKI Sagarzazu Zapirain
HAIZEA Telletxea Artola



UDAZKENA





UDAZKEN GAIA LANDU GENUENEAN, UDAZKENEKO FRUITUEKIN MERIENDA GOXO BAT PRESTATU GENUEN.

HIRU URTEKO NESKA MUTILAK ERE GONBIDATU GENITUEN.



UDAZKEN GAIA LANTZEN ARI GINELA, ARISTIZABAL BASERRITIK GONBIDAPEN BAT JASO GENUEN, "NAHI AL DUZUE SAGARRA NOLA JOTZEN DEN IKUSI?" ETA BERTARA JOAN GINEN. TOLAREA IKUSI ETA ZIZARRA DASTATU GENUEN.

LURDESEK PAXINTXIAK BANATU ZIZKIGUN. GOIZ EDERRA PASA GENUEN.





OIARTZUNEN BADUGU BERTSOLARI HANDI BAT



ARKAITZ GOIKOETXEA

Arkaitz Goikoetxea Arriola . 28 urteko oiartzuarra. Euskal filologian lizentziatua, eta Euskaldunon Egunkariako hizkuntza zuzentzailea.

Orixe eta Osinalde sariak irabaziak ditu, baina Euskal Herriko Txapelketa Nagusian lehenengo aldiz kantatu du gure bertsolariak. Eta nola kantatu ere! Ongi halere!

Donibane Garazin eskuratu zuen final-aurreetarako txartela. Final-aurreetan Azpeitian eta Tolosan kantatu ondoren, Egañaren atzetik, Euskal Herriko 9.

bertsolaria dugu. Bertsolaritzak sekulan ezagutu duen mailarik altuena bizi dugun garai honetan, Euskal Herriko 9.a. Ikaragarria, Arkaitzek erakutsi duen maila. Txapelketa gogoangarria egin du oiartzuarrak. Bertsozalearen gogoan bertso asko utzi ditu tatuatuta, eta horien artean, Tolosako final-aurrean kantatutako hiru kartzelakoak.

Zorionak, Arkaitz! Zorionak, benetan. Bejondeiala, motel! Eta bejondeigula, guri ere! Gure ikastolako ikasle ohia baita. Eta Haurtzaro Bertso Eskolako irakasle ere bai.

El ex - alumno y actual profesor de la escuela de bertsolaris de Haurtzaro Ikastola ha dado la gran sorpresa en el IX Campeonato de bertsolaris de Euskal Herria. En la eliminatoria de Donibane - Garazi logró el pase a la semifinal, y en las semifinales ha logrado un meritorio 9º puesto en la clasificación general. Agradecemos a Arkaitz el haber llevado a tan altas cotas el bertsolarismo de Oiartzun. ¡Zorionak motel!



ESKERRIK ASKO HAURTZARO

1. Hau eskola ez zen izan guretzat garai hutsala Ixiar, Arantxa, Beñar lehen irakasle bezala; hauekin zorionean sartu ginen berahala baloi, puzzle ta margoek ez zeukaten lan makala. Arantxa Lopez, Igone ta Maria Luixa apala etorri ziren ondoren bost bat urte geneuzkala.... Hauekin ikasi genuen irakurtzen nola hala, aitor dugu zuen lana eskergarri izan zala.

2. Zortzi urte betetzean Beñar, Ixiar ta Pepi, pasatutako bi urteak oroitzen ditugu beti. Altsasuan eta Baratzten pasa genuen ederki, ondorengo laurak ere ez ziren egondu gaizki. Koro, Elias ta Agurtzanek ate ugari ireki, horregatik eskerrak nola eman bagenek; Izaskunek ere ematen asmatu zuen galanki; gure gogoan badago Denontzat adina toki.

3. Josunek eta Anttonek D.B.H ko sarrera ondoren pasatu ginen beste etapa batera gero Madalen ta Kontxi aldatuaz egoera, Madalen haurdun jarrita gero hainbat gorabehera. Kristina Zuza Hernanitik gure ikastola aldera, oroitzapen politekin ordutik gelditu gera; beraz guzti hauei esan nahi diegu orain zera: denak iritsi zarete gure bihotz barrenera.

4. Azkenik DBH 4 denoi pasa zaigu auro Kristina eta Kontxikin ez gera egon luzaro; hala ere konfiantza edozertarako dago. Zuekin pasa ditugu momentu politak franko; eskerrak bientzat eta udara ongi igaro. Bizitzak berekin ditu zenbait garai edo aro garenak izateagatik zorretan gaude zeharo eta gu denon partetik

*Eskerrik Asko
Haurtzaro!!*



Beno:

Bakarrik esan, gu denon partetik DBH4. mailakoen partetik, bertsoan esaten dugun bezala gauzak izateagatik egi-tan zorretan gaudela eta bihotz-bihotzez eskerrik asko denoi eta zaila izango zaigu hau guztia uztea eta horregatik gurekin izango zaituztegu beti.

ESKERRIK ASKO

2000-2001 ikasturtea
DBH 4ko ikasleak

Con estos versos y estas palabras se despedían los alumnos de 4º de ESO en la fiesta que celebramos el día de la Ikastola. Fueron momentos muy emocionantes para todos, y esas palabras nos llegaron hasta el corazón. En estos versos resumen los años vividos en el centro y a buen seguro no los olvidarán fácilmente. Nosotros tampoco. Desde la Ikastola les agradecemos estas muestras de cariño, y sólo nos falta decirles que la Ikastola seguirá abierta para todos ellos.



MARIBI ALONSO IRAKASLEAK 25 URTE HAURTZARO IKASTOLAN

2001eko ekainaren 27an, Haurtzaro Ikastolan ekitaldi polit batean, Maribi Alonso irakasleari omenaldi xume bat eskaini genion. Izan ere, joan den ikasturtean bete baitzituen 25 urte Haurtzaro Ikastolan hasi zela lanean. Horrela bada, ikastolako langile guztiak bildu ondoren, lehendakariak, Arantza Manterolak, hartu zuen hitza eta 25 urte hauetan Maribik egindako lana eskertu zuen eta hurrengo urteetan lanean gogoz segitzeko animatu zuen.

Jarraian, Maribi irakasleak hartu zuen hitza, eta bere graziarekin hogeita bost urte hauek laburbiltzen saiatu zen.

Jarraian, Ikastolako partaide guztien izenean lore sorta jasotzeaz gain, opari eder bat jaso zuen. Bukatzeko, mokadu bat egin zuten bertako partaide guztien artean.

El pasado 27 de junio Haurtzaro Ikastola le rindió un homenaje a la profesora Maribi Alonso, ya que durante el curso pasado se celebraba el 25 aniversario de su inicio como profesora en nuestra ikastola. En este homenaje la presidenta de la ikastola agradeció la labor que Maribi ha realizado en nuestro centro y animó a que siguiera la misma trayectoria. También se le entregó un pequeño obsequio y la velada terminó con un lunch.

ANTTON KAZABON IRAKASLEA 2001EKO EUSKADI SARIKO FINALISTA




Antton Kazabon, Haurtzaroko DBH I. zikloko irakaslea, 2001eko EUSKADI SARIko finalista izan da Haur eta Gazte literatura sailean. Izan ere, 2000. urtean sail horretan 88 obra argitaratu ziren Euskal Herrian, eta horietatik 8 aukeratu zituzten finalerako. Aurtengo irabazlea Carlos Linazasoro idazlea izan baldin bada ere, azpimarratu nahi dugu gure etxeko irakaslea den Antton Kazabon, Joxan Ormazabal, Aingeru Epalza, Joxerra Garzia... ekin batera finalista izan dela.

"Kanpai hotsak isiltzean" izeneko liburuarekin iritsi da Antton aurtengo finalista izatera. Haurrak eta gazteak dira liburuan jasotako ipuinetako protagonista gehienak. Eta sortu dituen pertsonaia horien bitartez, bere haurtzaroaren berri ematen digu Anttonek.

Antton Kazabon Amigorena, Haurtzaro Ikastolan irakasle lanetan ari da 1973tik. Bertsozalea eta idazlea da. Eta dagoeneko hogeitabost liburu ditu argitaratuak orain arte.

Zorionak Antton eta segi ezazu bide horretatik!!

Antton Kazabon, profesor de ESO de nuestra ikastola ha sido nominado finalista en el premio EUSKADI de literatura infantil y juvenil con el libro de cuentos titulado "Kanpai hotsak isiltzean". Además de profesor, Antton es escritor y bertsozale. Cuenta en su haber con 25 títulos publicados, y esperamos que esta nominación sea un gran acicate para que siga sorprendiéndonos con su prosa. Zorionak Antton!





Informazio eta Komunikaziorako Teknologia berriak Haurtzaro Ikastolan



Gaur egun berebiziko aldaketak egiten ari dira informazio alorrean. Eta aldaketa hauek hezkuntzan duten eragina ezin ukatu. Hain zuzen ere, Europako Batasunak berak ere iraultza industrialia izan zenetik adierazgarrienak direla uste du.

Aldaketa horiei erantzuteko, Informazio Teknologia berrietan oinarritutako ikastola antolatu nahi dugu Haurtzaron. Gure ikastolako ikasleek eta irakasleek Komunikazio eta Informazio Teknologia eskaintzen dituzten abantailak jaso behar dituzte. Honen harian, ikastetxe guztiak Internetera eta baliabide multimedietara irits daitezten, European sortzen ari diren ekimenekin bat egin beharra dugu derrigorrean. Asmo horretan, eta gure ikasleen ordenagailuak tresna eta iturri pedagogiko bihurtzeko, Ikastolen Elkartek-Partaidek Informazio eta Komunikazio Teknologien ezarpenaren jarraipenerako osatu duen batzordeko kide gara.

Haurtzaro Ikastolan ahalegin berezia egiten ari gara gure irakasleak teknologia berrietara presta daitezten, gure ikasleek informazioaren teknologia kontrolatzeko gaitasuna lor dezaten. Garrantzitsuena ez da aldi behingo programa edo ordenagailu-operazio konkretu sorta egiten irakastea. Komunikazio sistema berri hauetan integratzera iritsi ahal izateko, ikasleak oinarritzakoak izango diren prozeduren esentzia atzeman beharko du, eta informazio digitalaren tratu-erako trebeziak etengabe berritzeko prest egon

beharko du. Etengabe eraldatzen joango den testuiguru horretan, ikasleak autonomoak eta malguak izan daitezten, eta bertan jarraitzeko errekursoak eskura ditzaten lortu behar dugu Haurtzaro Ikastolan. Hori xe da, hain zuzen ere, Ikastolak ikasleari zor diona hemendik aurrera.

Urte asko dira Haurtzaro Ikastola aro informatikoari aurre egiteko lanean hasi zela. Jarrera baikorra erakutsi dugu betidanik teknologia berrien aurrean. Gure baliabide mugatu eta urriek baimentzen zutenaren arabera, behintzat, ikastolak esfortzu eta ahalegin handiak egin ditu informatika eta teknologia berrien esparruan, batzuetan beste hainbat ikastolarentzako eredu bihurtzeraino. Baina aurtengo ikasturtean urrats kualitatibo handia egin berri dugu: Informazioa eta Komunikazioaren Teknologian ikastola pilotu izendatu gaituzte.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskaintzen duen laguntzaz baliatuz, 8 bat milioitako inbertsioak egiten hasia da Haurtzaro Ikastolak. Izan ere, Haurtzaro Ikastolako Kontseilu Errektoreak gai estrategikotzat jo du Informazioa eta Komunikazio Teknologien erronka, eta inbertsio hau behar bezala bideratu ahal izateko, iaz ikerketa bat agindu zuen ikastolako premiak aurreikusteko.

Batzar nagusiko txostenean zehaztutako gehiago topa ditzakezue.

Hoy en día se están dando cambios cualitativos en el tema de la información. Y estos cambios tienen su influencia en el mundo educativo. Incluso la Unión Europea considera estos cambios como los más significativos ocurridos desde la revolución industrial.

La ikastola Haurtzaro está realizando un esfuerzo especial para que el profesorado se forme en las nuevas tecnologías, y nuestros alumnos se capaciten en el control de esas fuentes de información. Lo esencial no será conocer algún programa, ni una actividad concreta o momentánea. Para integrarse en este nuevo sistema de comunicación, el alumno deberá dominar los procedimientos básicos, y estará dispuesto a renovar continuamente y sistemáticamente sus habilidades en el tratamiento de la información digital. Haurtzaro ikastola debe conseguir que en este contexto de permanente cambio, el alumno sea flexible y autónomo, y, además, tenga a su alcance los recursos necesarios para permanecer en él. Esto es lo que consideramos que desde ahora la ikastola debe al alumno.



TITIRIJAIA

Tolosan, azaroan, 19. Titirijaia ospatu zen. Bertan egon ginen L.H. 3. zikloko neska mutilak. Goizean saio zoragarri bat ikusi genuen ("La cabeza del dragón"), eguerdian italiar txotxongilo erakusketa harrigarri bat bisitatzeko parada izan genuen eta, bazkaldu ondoren, bigarren saio batean ("Eki, eguzkia") antzezleekin dantzatzeko aukera eman ziguten. Aho bete hortz geratu ginen.



OIARTZUNDIK LESAKARA

Urriaren 4an, osteguna, DBHko 3. eta 4. mailetako ikasle eta irakasleek Oiartzundik Lesakarako bidea egin zuten oinez. Bidea polita bezain luzea izan zen, baina primerako eguraldia egin zien eta guztiak iritsi ziren oso-rik. Hori bai egun bat baino gehiago iraun zion zenbaiti egun horretako oroigarriak. Horiek zangoetako minak, horiek!





MARTXEL MARISKAL ESTATU BATUETAN

Martxel Mariskal Haurtzaro Ikastolako DBHko irakaslea Estatu Batuetan dago borondatezko eszedentzia dela medio. Izan ere, iazko ikasturtearen bukaeran EEBBetara joatea erabaki zuen eta gaur egun egiten ari denari buruzko laburpentxo bat egitea eskatu genion eta hona hemen zer kontatu digun:

"Ze programaren bitartez joan zara Estatu Batuetara?"

Espainiako Hezkuntza Ministeritzak eta Estatu Batuetakoak duten nazioarteko akordio baten bitartez izan dut aukera honara irakasle moduan lanean aritzeko. Penintsulako bazter guztietatik hautatutako irakasleak gabiltza hemen.

Non ari zara lanean une honetan?

Bostonen (kanpoaldean), Institutu Publiko batean: Chelsea High School.

Zertan ari zara, hain zuzen ere?

Hango DBH-ren pareko ikasketetan ari diren nerabeekin lanean.

Zeintzu dira ikasleekin jorratzen dituzun gaiak?

ESL (English as a Second Language / Ingelesa Bigarren Hizkuntza bezala) irakasten ari naiz, gehien bat. Ikasle hauek Estatu Batuetara azken bi urteetan etorritakoak dira kasu gehienetan. Orohar, jatorriz famili xumeetatik datozen gaztetxoak dira nire ESL klaseetako ikasleak eta gehienak Ertamerikakoak dira. Tartean ere badituk bosniarrak, kroaziarrak, somaliarrak, Cabo Verdekoak, haitiarrak, bietnamitarak eta brazildarrak.

Zer nolako egoeran bizi dira zure ikasleak?

Normalean, ikasle hauek gehienak errealitate gordinetik datoz: baten bat haize-eraso bortitz baten ondorioz -hurakanaren bat edo- etxerik eta inolako ondasunik gabe geratutakoak, besteren bat mafia kolonbiarrak aita heriotz-mehatxuan duelako, asko ta asko gerrate zibiletatik ihesean datozenak, etab. Gehienak klaseen ondoren berandu arte supermekatueta edota horrelako eginkizunetan lanean aritu behar badute ere, eta eguna leher eginak amaitzen badute ere, egungo egoera beraientzako -eta beraien familientzako- ez da inolaz ere atzean laga dutena bezain gogorra.

Sekulako esperientzia da halako aniztasun soziala, kulturala eta linguistikoa osatzen duten gazteekin lan egitea.

Pentsatuko duzutenez, nire ikasleen izenak ez dira Egoitz, Nekane, Lohitzune, Xabier, Eneko edo antzekoak, Sanela Pajazetovic, Juliana de Oliveira, Madina Mohamed, Norilyz Romero, Heiny Villa, Nenad Pejic, Renzo Fustamante, Nha Nguyen, Koeun Sorn, Awilda Robles eta tankera hortakoak baizik. Bitxia, ezta?

ESL-eko klaseaz gain, zein dira zure ardurak?

ESL-eko klase horietaz gain, Ingelesako departamentuan lan egiten dut, alde batetik "Literacy" delakoa lantzen, hots, ikasleen "alfabetazioa" (?), esaterik bada, eta, bestalde, Literaturan laguntzaile bezala (5 aste daramatzagu Homeroren "Odisea" rekin gora eta behera).

Zer nolako ezberdintasunak aurkitu dituzu gure irakaskuntza eta EEBBetako artean?

Jakin, Estatu Batuetako arazo nagusia -ikasketa mailan- irakurtzerakoan (irakurri: testuak behar bezala ulertu) eta idazterakoan duten maila eskasa dela. Gabezi hau oso- oso nabarmena da eta, derrigorrezko heziketan, errealitate honek sekulako eragina dauka: emaitzetan, programak antolatzerakoan, taldeak egiterakoan, etab. Horretaz kanpo, nahiz eta egun nagoen ikastetxean nik ez dut inolako arazorik maila honetan, disziplina arazo larriak daude.

Honen guztiaren arrazoi nagusiak bi dira, nire ustetan behintzat: bata, aniztasun kulturalak dakarren desoreka; bestea, aldiz, gizarte berezi honen eragina gaztetxoengan eta, horrekin oso estuki lotuta, "familia disfuntzionalen" (termino hori asko erabiltzen da hemen) hedaketa.

Zer nolako iritzia daukazu aniztasun kulturalari buruz?

Iruditzen zait, aniztasun kulturala, dudarik gabe, alderdi aberats anitz baditu ere, behar bezala landu behar diren errealitate eta egoera anitz dakarziela berorrekin eta, aurrerantz, gure herrian ere, oso kontutan hartu beharreko gaia dugula hezitzaileak garen neurrian. Gizarteak daraman garabidea geldiezina denez, guzti hau sekulako erronka izan daiteke biharko ikastola eta ikastetxeentzako.

Hauexek izan dira Martxelek kontatu dizkigunak. Txinparteko lerro hauen bitartez gorantziak bidali nahi dizkiogu. Era berean, ikasturte oparoa izan dadila opa diogu.

Martxel Mariskal, profesor de Haurtzaro en la etapa de ESO se encuentra trabajando en los Estados Unidos. A finales del año pasado solicitó una escedencia voluntaria, y por medio de una cooperación entre el MEC y el departamento de educación de allí, trabaja en un instituto de los suburbios de Boston.

En esta entrevista nos cuenta que trabaja en este instituto con adolescentes emigrantes la asignatura de inglés. Se trata de alumnos procedentes de familias con un bajo nivel económico, en su mayoría emigrantes que proceden de Brasil, Haití, Colombia, Cabo Verde, Croacia, Bosnia... La situación de estos alumnos no se parece en nada con la de los alumnos de Oiartzun, ya que nos recuerda que una vez finalizadas las clases, estos alumnos trabajan hasta bien tarde en supermercados...

Por último nos habla de la diversidad cultural que está conociendo en ese país y las diferentes situaciones que está viviendo. Además nos recuerda que poco a poco esta diversidad cultural está llegando a Euskal Herria y que los centros de enseñanza tenemos que prepararnos ante este nuevo reto.



MARIA JESUS RETEGI IRAKASLEA, INGELES IKASTEN ERRESUMA BATUAN

Duela hiru urte, Haurtzaro Ikastolako irakasleria ingelesan trebatzeko premia zegoela eta, Maria Jesús Retegi irakasleak heldu zion erronka honi eta ingelesa ikasteari ekin zion bere borondatez. Baina, hizkuntza bat ikastea oso gauza erraza ez denez, eta ikusirik hitz egiten den tokian ikastea baino gauza hoberik ez dagoela, joan den ikasturtearen bukaeran borondatezko eszedentzia eskatu, eta aurtengo irailaz geroztik Erresuma Batuan aurkitzen da ingelesa ikasten.

Berarekin hitz egiteko parada izan dugu eta hauxe da kontatu diguna:

"Une honetan BATH herrian bizi naiz. Bath Erresuma Batuko mendebaldean dagoen hiri koxkor bat da, oso polita eta historia handia duena. Ezaugarri nagusi bezala esango dizuet etxe guztiak "Victoriano" estilokoak direla.



Hona etorri nintzen ingelesa ikasteko asmotan, Donostiako Lakuntza eskolan bi urtez aritu ondoren. Izan ere, hona etortzeko erabakia hartu nuen bertan hobeto ikasiko dudalakoan.

Egunero bost ordu ematen ditut ingelesa ikasten, 'City of Bath College' n, hiru goizez eta bi arratsaldez ingelesa ikasten. Nire gelan dauden ikasle gehienak ekialdekoak dira: txinatarrak, japoniarrak, korearrak, tailandiarrak... Bi espainiar ere badaude.

Goizeko bederatzieta hasten ditugu klaseak, hamabiak eta laurdenak arte. Hamaiketan ordu laurdeneko atsedena izaten dugu. Arratsaldean berriz bi ordu klasea izaten ditugu, ordu bietatik lauetara.

Hemengo otorduak, horkoekin konparatuz gero, ezberdinak dira eta bostetako afaria egin behar dut. Hau da gehien kostatu zaidana, baina beste erremediorik ez dudanez moldatu egin naiz.

Afal ondoren beste zerbaitegiteko aukera izaten dut: edo ingelesa ikasten jarraitu, edo telebista ikusi, edo lanera joan...

Hasera batean familia batean egon banintzen ere une honetan gela bat alokatu dut zentroan. Familia batean alokatzeko arrazoia ingelesez hitz egieko aukera gehiago izango nuela izan zen, baina ez zen hala gertatu.


Orain ingeles jendearekin hitz egiteko aukerak bilatzen ibiltzen gara, pazientzi pixka bat duen jendea..., eta badagoela frogatu dugu.

Hauxe da gutxi gorabehera egunero egiten dudana. Batzuetan inguruko herriak bisitatzen ere saiatzen naiz.

Oso garestia da hemengo bizitza, horkoaren bikoitza baino gehiago. Zailena eta harrigarriena kalean eguna seiretan bukatzen dela ikustea izan da. Egunean zehar jendez beterik dauden kaleak hutsik geratzen dira arratsaldeko seiretako eta zortzietatik aurrera bakarrik ibiltzekotan kontuz ibiltzeko esaten didate. Ordu horretan jende gehiena etxera joaten da."

Hauxe da Maria Jesús Retegik adierazi diguna. Txinparteko lerro hauetatik gure animoak bidali nahi dizkiogu, eta ingelesa ongi ikas dezan opa.

La profesora Maria Jesús Retegi se encuentra en el pueblo de Bath (Reino Unido) perfeccionando el inglés. Tras una experiencia voluntaria que cogió en septiembre, acude a clases de inglés durante cinco horas diarias al 'City of Bath College'. Nos cuenta que le resulta muy diferente la vida en este país: la comida, los horarios, los precios... Nos explica que a las cinco de la tarde es la hora de la cena y a las seis de la tarde ya no anda nadie por la calle. Por último nos explica que el pueblo es muy turístico y las casas son de estilo victoriano.





5 JIRTEKONES KANUTILAKAZ ETAAUTDURZEE
 ETABESATVERKXANUSARATRENE
 LAGUNAKEZABUTUDITUGU ETAEKARREKI
 BAZKALADUDUGU
OOTAZ AUGU
 ASERIOA EILE
 (AUTTER KI TO LITA EGIN ETTEN) ISASO
 EALKATAKEAPOLIAKIUZTE
 (GE LAK HAUDE ETATOLITAK DI TUR TEI)
 KOMUNAK SIKIAKEARATINAKETAAUNTIKTEU
 TE
LAUNAKEINARA
 (LA GU HAU ERIN SADA) ANDER
 EKINUXUE MAITE
 JULEN ANDREA
 MARZA
 EGIN
 IRAT
 AITOR
 KRISTE
 ISASOU
 XABIER
 ALAIA
 LANDER
 JON





GURE AMONAK IKASTOLAN

OIARTZUN GAIA LANIZEN ARI GARA ETA

GURE AMONAK GONBIDATU DITUGU LEHENGO
KONTUAK GURI KONTATZEKO

MARITXU DOLOREX ETA JOXEPA ETORRI
DIRAL ETA GURE GALDERAK MORDOA ERANTZIN

DUTTE. HEMEN DATZI DITUGU ESNDAKO
BAIZUK: PLAZA ORAIN BEZELAKOA
ZEN GUTXI GORA BEHERA

ETA GUTXI ZEUDEN. KOTXE GUTXI ZEUDEN
ETA ASTO GAINEAN IBILTZEN ZIRENO
AUTOBUS BAKARRA IBILTZEN ZEN.

ORAINGO BIDEKO RRIAN FENA IBILTZEN
ZEN ARDITURRIK PASAIRA.

DOLOREXEN ARDITURRI EGITEN ZUEN LAN
MARITXU NESKAME ETA JOXEPAK BARAZ
KIASALTZEN DITUEN AZOKAN

GUREN EGOTEA ATIK ESKEERRIKASKO ETA MUXU
HAUNDI BAT MARITXU JOXEPA ETA DOLOREX
160 MAILAKOAK






2. MAILAKOAK

SORONDORA




Astiralean, urriaren 26an,
Sorondora goan ginen Iturriotze-
tik ibili ginen eta Garainoko
iturria ihusi genuen. Hortik au-
rerago atoka bat zegoen mi-
nialak eriz pasatzeke.

Hortik aurrera sio boreria-
ren zatik ihusi genituen:
belardia, zukaizteak, soroa,
barrea eta hortik aurrera -
no ardi baton burua ihusi
genuen. Hortik aurrerarengana
hamaiketara egin genuen.



gero ozenbizioko ermita
ihusi genuen. Han argaz-
ki bat egin ziguten.
Hortik aurrerako Sorondora
iritsi ginen, bazkaldu eta ge-
ro jolastu egin genuen.



SAGARDOA NOLA EGITEN DEN IKUSI ETA IKASTERA

Posten 3 mailen sagardoa nola egiten den erakutsi digute.
 Enan lodiarekin parrakak banch dira:
 Lehena sagarrik bide behar da. Sagar
 gustiak pilatu ondoren ustelap kanden eta
 ustelap diranok txakite bizi behar dira. Sa
 larean sagarra sartzen (prentsatzen)
 sagar-zukua (murtia) lortzen da.
 Kuxpletan sartu eta hilabete latzak
 egon behar du bere horretan.
 Hilabete horiek pasa ondoren sagardoa
 prest dago dastatu eta lortzeko.
 sartzean. Gure etxerik perokatu Olatz maitari
 prentsatzen sagarra gure etxerik gaitik eta
 gaitik dastatu omen gure etxerik:
 Bai GOXOA ZEGOELA!

3. MAILAKOAK



Joan naiteke bakarrik ikastolara?

L.H. 2. zikloko 4. mailan inkesta bat bete dugu. Inkesta honen helburua gure herriko arriskueta jabetzea da, batez ere ikastolarako bidean.

Inkesta hau 31 ikasleek bete genuen: Inkesta hiru zatitan banatua zegoen:


1. Oinez eta bakarrik etortzen garenak : 14 ikasle
2. Garraio publiko edo pribatua etortzen garenak: 17 ikasle
3. Gurasoekin oinez etortzen garenak: 0 ikasle

1. multzoan 10 galdera erantzun zituzten eta hau jakin dugu:

Ikastolako bidean arrisku batzuk baditugula:


- auto asko eta azkar ibiltzen da
- semafororik ez dago
- bidegurutzetan udaltzainik ez dago...

eta lekuri arriskutsuenak rotundak eta ikastolako aparkalekua direla.



2. multzoan, berriz, 3 galdera erantzun dituzte eta hau jakin dugu:

gehienak kotxez edo autobusez etortzea nahiago dutela erosoago delako



Denen iritziak bateratu eta eztabaidatu ondoren, ondorio honetara iritsi ginen:


Nahiz eta arriskuak egon, oinez etortzea nahiago dugula gehienek, kirola egiten delako, kalean gertatzen diren gauza ezberdinetaz ohartzen garela eta adiskidetasuna bultzatzen delako. Dena den batzuk erosotasunagatik autoan etortzea nahiago dute.

Dena aztertu ondoren hau ateratu dugu garbi: Bakoitzak erabaki beharko du hemendik aurrera, nola etorri ikastolara.



ELIKADURA

Azaroan, 5. mailakoek liseri sistema ikasi berria genuenean, elikadura eta nutrizioari buruzko tailer bat izan genuen. Karlos Argiñanoren Aiala Sukaldaritza Eskolako irakaslea den Xabier Odriozola etorri zen. Koipe saturatuetaz (animaliatatik sortutako elikagaiak, Donutsak, Bollicaoak, txokolatea, ...) eta ez saturatuetaz (barazkiak, zerealak, frutak, ...) hitz egin zigun besteak beste. Argi esan zigun denetik jan behar genuela baina koipe ez saturatutatik gehiago. Beti ere, on egin diezazuela!





ANOREXIA, BULIMIA

Gizentasuna, anorexia, bulimia, gaixotasuna, gutxi jan, kirola egin, hezurretan, jan eta bota,...

Nerabezaroan sartzeko atarian, 6. mailan gai interesgarri hauek lantzen aritu gara: zer da bakoitza, zein ondorio ditu, zergatik gertatzen da,...

Honetarako gurekin izan ditugu Leire eta Idoia, eta modu argi eta errez batean gela bakoitzak ordu pare bateko saioetan aritu gara. Gurasoek ere izan dute honetarako aukera.

Ondorioak: gogo eta interes handiz jarraitu dugu saioa, eta gaiak ikasi ere egin dugu. Oso interesgarria izan da.

Honen adierazgarri, hona hemen joko pare bat. Ea asmatzen dituzun.





Hemengo hizki-zopa hauetan osasunarentzat onak eta txarrak diren janarien izenak daude gorderik. Ea asmatzen duzun hizki-zopa hauetatik zein dagokion janari osasuntsuei eta zein ez hain osasuntsuei.

A	Z	A	C	Q	B	D	K	L	P	O	A
B	Z	E	R	E	A	L	A	K	A	A	I
C	C	F	D	O	G	O	P	M	T	C	A
I	U	E	R	R	S	G	A	N	A	B	R
H	U	F	O	V	T	I	T	P	T	D	R
W	W	P	A	S	T	A	A	Ñ	A	E	A
I	O	H	B	A	R	A	Z	K	I	A	K
V	B	Y	L	J	G	P	T	T	U	Z	F
X	A	J	N	I	F	U	A	S	V	Y	G
Y	Z	K	Ñ	H	G	M	Q	R	W	X	H

T	A	H	E	K	D	P	A	L	M	O	P
X	X	I	J	G	L	F	N	M	G	O	Q
V	P	O	B	O	I	L	E	R	I	A	R
L	A	S	K	X	N	E	Q	R	S	P	T
E	L	U	V	O	I	L	A	S	K	O	A
T	M	X	Y	K	L	W	A	X	B	V	U
A	E	B	D	I	E	A	C	Z	F	J	K
T	R	R	T	A	J	L	T	H	I	Y	L
A	A	H	I	K	M	K	M	E	G	D	N
D	O	D	O	L	K	I	A	K	A	O	Ñ

AÑE Aiestaran
HAIZEA Eizagirre



GORPUTZ BILUZIA, JOSTUN AKATSA

Nire erlojuak orratzak mugitzen zituen
gure denbora geldirik, ordea.
Orratzak aurrera zihoazen
denbora, ordea, ez.
Denbora gelditu egin zen, zorionaren
orduan geldi.

Momentu haietan
gure bi gorputzak bat eginik
zu eta ni biak bat
mundu osoa baino garrantzitsuago ginen.

Ilargi beteak nire iluntasuna argitzeko
aina argi oparitzen zuen
zure gorputzaren suak
nire hotza leuntzeko aina bero.

Zure muxuek nire gorputz biluzia
jantzi zuten gau hartan
zure besarkadek nire bakardadea
estali zuten
zure begiradaren kotoizko hariak
nire min isilaren zuloa
josi zuen.

Nola jakin zure maitasuna
zure amodioa
norainokoa zen?
nola jakin une gozo haren ondoren
nire albotik joango zinen ala ez?
Gure artekoak urrats asko eman ditu
pausuz pausu aurrera egin du
une hau beste asko bezain
zoragarria izan da
merezi izan du.

Nire bihotzaren taupada bakoitzak
zure irudia aipatzen du
zure irudia goraiatu
nolatan jakin zenbateraino maite nauzun?
tristura artean espero dut
nik zu aina maitatzea
nahiz ez jakin seguru
apur bat ere maite nauzun.

D.B.H I. zikloa
IZENGOITIA: Gautxori

ERABAT ITSU

Nerabezaroa, harresi gaindigaitza,
zapuztutako ametsen garaia,
garai garratza,
garai gogorra.
Gazte izatea,
galderak, ezin ulertuak eta zalantzak;
gazte izatea
tristura, beldurra eta urduritasuna.

Zintzilik,
bizitza osoa zintzilik,
hari mehe, ahul batetik zintzilik.
Eta hari ahul, garratz, kiratsduna eteteen zer?

Alboan dugun laguna, leiala eta gozoa,
euskarri izateko prest daukaguna;
bizkarra ematen diogu ordea!!
Ez gara ohartzen
ez dugu ohartu nahi
bera dela laguna
beti alboan edukiko duguna.

Eguzkia ekialdetik keinuka ikustean,
ume bihurria bailitzan;
galdera ozen, zorrotz, hotzak guregan.
Zergatik zorigaitzokoenak dira bizitzari gogorren heltzen diotenak?
Zergatik dena dugunok ezer gabe sentitzen gara?
Zer da dena?
Zer da ezereza?
Zergatik gara?
Zergatik izan?
Zergatik...?
Ba ote erantzunik?

Agian,
beharbada,
apika,

litekeena da.
Zergatik?
Eta zergatik ez.
Hona hemen erantzuna,
argia, kementsua eta balioduna.

Galdera hauek,
meatxu isilen gisan;
gure izatearekiko zalantzez betetzen gaituzte.
Garrantzitsuena aldiz
ez da hauek erantzutea,
hauen gainetik bizitzen jakitea baizik.
Hainbeste oztopo, zangotrabatu eta erortze,
gure nortasunaren bide horretan,
bidaia amaigabe horretan.

Bidaia, heriotzerantz.
Batzuk oinez,
eta besteak korrika joatera behartuak.
Gizakien arteko gerren,
zangotrabatu handienen,
biktima bihurturik.

Afganistango gerra,
bonbak lehenik, janaria hurrena.
Gerra bakarra? ez bi gerra,
bata misilena eta bestea hipokresiaarena.
Zein ote hilgarriena?

Begia begiaren truk.
Hainbeste begi trukatzeko,
mundua itsutzearen arrazoi bakar,
gupidagabe, nazkagarri, zikina.
Ezin ikusi,
mundua erabat itsu,
gu ere bai.

POESIA
DBH 3.maila
EKIÑE ARISTIZABAL



DOGMAK AURREZ-AURRE

Sense & Sensibility liburua XVIII. mendeko Ingalaterrako gizartearen egoeraren adierazlea da, baina batik bat garaiko emakumeena.

Harrigarria badirudi ere, idazlea bera emakumezkoa da, Jane Austen, baina eskemak erabat apurtu zituen bere bizimoduarekin; izan ere, ez zen ezkondu, lanbide bat zuen, ez zuen seme-alabarik izan... Eta batzuen ustez, XX. mendean garatutako feministen mugimenduaren aitzindari izan zen.

Bere obretan ez zuen bere bizitza agertzen, bere inguruko emakumeena baizik. Pertsona hauek goi-mailako nekazariak dira eta euren helburua senar on bat topatzea da, harekin familia eratu eta euren bizitza "egintzat" jotzeko.

Lehen aipaturiko liburuan (Sense & Sensibility), emakumezkoen egoera hori bi pertsonaia nagusiengan ikusten da: Elinor eta Marianne Dashwood ahizpengan.

Maitasuna ere bilatzen zuten, baina guretzat ez den modu batetan. Bazekiten zer zen maitemintzea, baina gizon egokiaz egiten saiatzen ziren, eta betirako. Horrexegatik, gurasoen hitzak baldintzatzen zuen dena, beraien sentimenduen gainetik. Hori zela eta, garaian hainbat bikote sortu ziren elkarrenganako erakarpen eta desiorik gabeak.

Erromantizismo garaiko idazlea bazen ere, mugimenduaren Ezaugarri gehienak ez datoz bat Austenekin. Zeharka gai batzuk jorratzen ditu (maitasuna, etb.), baina hori bere estilo propioaren barnean koka genezake.


Erromantizismoko dogmekin alboratuko bagenu Ingalaterrako lehenengo emakume nobelagilearen liburua (eta lanak) dogmen bi aldeak (erromantikoek bultzatuak eta bultzatu gabeak), neurri berdinean topatuko genituzke aztergai dugun eleberrian, izan ere, SENTIMENDUA (sensitivity) ez dago ARRAZOIAREN (sense) gainetik, kontrajarriak baizik MARIANNE (sensitivity) eta ELINORren (sense).

Beraz, emozioa eta intuizioa Mariannengan islatzen dira (izaera guztiz erromantikoa) eta logika eta zientzia, Elinorrengan.

Hau guztia dela eta, pena merezi duen liburua da.

Zuena da hitza!!

Anne Hertze, Udane Perez eta
Goiatz Labandibar





EZ DUT JOLAS EGITEKO DENBORARIK

Aurpegia malkoz betea, betazal-ezpainak eroriak, tristuraren eta ezintasunaren irudi bizia zen. Umeak ezetz eta ezetz zioen garbitzera deitzen nion bakoitzean eta zera botatzen zidan:

-Ez dut jolas egiteko denborarik!

Eta arrazoi zuen: eguna txirrin eta presa artean joaten zitzaion. Zortzietan habailan atera behar zuten kalean behera anaia zaharrenekin, autobusa lau kale beherago gelditzen baitzen eta ezin zuten galdu. Ia ordubetez errepidean ibiliko ziren neska-mutikoak jasoz eta bederatzieta iritsiko ziren helmugara: ikastolara. Ikastetxea alboko herritxoan, landa inguruan, dago eta nire bilobak kasko-kaskoan bizi dira, baina gurasoei asko gustatu zitzaion haien lan egiteko modua eta pedagogia eta hara joaten dira nire sei eta lau urteko bilobak.

Ikastola-egun oso batean zer egiten den ez dugu asko jakiten, ez gurasoek, ez aiton-amonek; ez alferrik familiari gorde diezaioketen apurretakoa baita ikastolan egiten dutena... noiz edo noiz ezustean bezala jakiten uzten diguten pasadizo bat edo beste kenduta.

Ikastolan izaten dira jolaserako tarte eta txokoak... baina hain dira txikiak! Eta eguna oso da luzea: han bazkaltzen dute eta, eskola amaitzean -bostetan-, anaia txikiak zaharrenari ordubete itxaron behar izaten dio, kirola egiten duelako. Eta etxera iristen direnean -zazpietan- beren jostailu eta zirkuarekin nahi adina jolas egin ordez, oraindik ere diziplina eta presa gehiago topa ohi dute: bainatzeko ordua da; eta pijama jatzekoa; eta afaltzera joatekoa; eta ohera joatekoa... bihar ere goiz jaiki beharko baita. Ez da, beraz, harritzekoa txikiaren kexua:

-Ez dut jolas egiteko denborarik!

Ama ere konturatzen da, beste amei entzun baitie beren umeak berdin direla kexu.

Ostegunetan aitak aiton-amonen etxean uzten dizkigu haurrak eta, bitartean, gestio edo erosketaren bat egiten du. Ni begira-begira egoten natzaie.

Zaharrenak mesanotxe eta eskailera txiki batez denda osatu du.

-Zer izen du denda horrek? -galdetu diot.

-Diamantea -erantzun dit serio-serio.

Bi urteko haur bat -saltzailearen lehengusua- etorri da dendara. Urrezko apaingarri bat gustatu zaio nonbait.

-Hirurogeita hamabost balio du -dio dendariak.

Banketxe-eginkizunetan hurbildu natzaie salerosketa egin dezaten eta hogeituro eman dizkiot txikiari eta honek, saltzaileari apaingarriaren truke. Beno. Salerosketa ongi atera da. Ez da besterik nahi izaten saltzera eta erostera jolasterakoan. Ez dute ezer erabiltzeko afanik. Are gutxiago aberastekorik. Edozein prezio balio du. Haurrak interesik gabe jolas egiten du. Saltzea eta erostea bizi nahi du eta alde batera uzten ditu handiok maiz izaten ditugun ezkutuko asmoak: eragiketaren xedeari eta irabaziari erreparatuz gehiago gauzari berari edo keinuei edo ekintzaren beraren magiari baino. Erosleak, behin apaingarria erosi eta gero, itzuli egin dio dendariari eta honek lehengo tokian utzi. Saltzaileak, zintzoa izaki, hogeiturok itzuli dizkio. Eta txikiak, neuri.

Beste biloba (dendariaren anaia txikia), bitartean, erakustokira

hurreratu da eta eskua jarri dio azeri irudia dakarren urre kolorezko plater bati. Anaia handiak ez dio uzten. Amonak galdetu dio zergatik ez dion saldu nahi urrezko azeria anaia. Arrazoa biribila da: jolasean ari dira eta anaia orain ez da anaia.

-Hau nire txakurra da eta txakurrak ez daude erosteko.

Eta arrazoi zuen. Txikiena, hasieran esan zidanez, "txakur-haurra" zen eta, horrenbestez, ez zegokion erostea. Jolasteak bere logika, bere seriotasuna eta bere arauak ditu. Adinekoak sarritan ez gara izaten gai ulertzeko. Handiok uste dugu "ala, joan jolas egitera" esatea handion baliabidea dela umeek gauza serioagoak egiten utz gaitzaten. Haurrentzat, ordea, garrantzitsu, funtsezko eta behinena jolas egitea da. Orain, une honetan egiten ez badute agian ez dute inoiz egiterik orain nabari zaien betetasunaz. Jolasa moztea iker-tzaileari lana etetea bezala da aurkikuntza handiena egitera doanean.

Ekonomiako irudi bat erabiliz, jolasa da haurren I+G (ikerketak + garapena).

-Zer egingo dut diruarekin? -galdetu dit anaia zaharrenak denda kendu eta urrezko edo zilarrezko apaingarriak, salerosketako edo jolaseko magia-orduetatik kanpo duten etxeko eguneroko bizitzako tokian utzi eta gero.

-Zeuretzat. Saltzen irabazi dituzu -erantzun diot.

-Egia esan, ez nintzen ari saltzen -ihardetsi dit gozoro, zehaztuz.

Gauzak, diren hartan. Nik, ordea, ez dakit nondik heldu eta berriro diot har ditzala txanponak. Begiratu eta onartu dit erdia hartzea.

-Aitonari emango dizkiozu txanponak? -galdetu dio amonak.

-Bai, asko lagundu dit saltzen.

Halaxe da. Zer egingo lukete dendariak banketxeen diru-mailegurik gabe?

Sei urteko anaia zaharrena urrezko gauzak bi urteko lehengusuari saltzen ari zen bitartean, lau urteko anaia txikiak adierazi dit ez dela jada txakurkumea eta zirkuan jolasten hasi da hango lehoi, tigre eta elefanteekin. Nahi bezala jolas egin dezake plastikozko bere animaliekin edota bera ere piztia egin.

-Lehoia naiz ædio orro eginez.

Lau urtetan lehoi, tigre, elefante egin daiteke edota izaten utzi eta txakurkume bihurtu. (Une hartan ezin dena erostea da: txakurrek ez dute erosten). Sei urtetan ez da hain erraza jada lehoi eta elefante izatea. Aski hazi da eta bat-batean izaeraz aldatzea zailagoa den mundu batean sartu da eta orain ardura handiz egiten dira handien imintzioak.

-Etxeak egiten ditut -esan dit zaharrenak eraikin arin eta polit batzuk egiten dizkidan bitartean. Anaia txikia lehoia da eta bestea, etxegile arrunta. Txikia ere bi urte barru ezingo da hain erraz lehoi egin eta negar egiten du orain ez badiogu uzten. Ongi ulertzen diot bere haserre: eguna badoala eta gaua badatorrela eta bainatzera deitzen diotela ikusi... eta negar eginez garrasika:

-Ez dut jolas egiteko denborarik!

Lorenzo Gomis





GABONETAN ERE IRAKURTZEKO PREST

Haurren heziketan liburuak joka dezakeen papera oso garrantzitsua da. Eta ez bakarrik lehen edo bigarren hezkuntzan, baita haur hezkuntzan ere, hau da, haurrak 0-7 urte dituen bitartean. Ezin baitugu ahanzi, liburuak gozatzeko aldia ez dela irakurketaren apendizai sistematiakoarekin bakarrik hasten, askoz ere lehenago baizik: haurrak lehen pausoak ematen, lehen hitzak dastatzen eta lehen irudiak bereizten hasten den une beretik hain zuzen.

Tamalez, merkatuan aurki dezakegun guztia ez da urrea. Ezta urrik eman ere!

Horretarako, liburuak ondo ezagutu behar dira, gero eta gehiago baitira, modu batera edo bestera abiada bizian plazaratzen direnak ia inork konturatu gabe.

Beraz, eta azken iradokizun gisara esan dezagun, irakur-gida honetan agertzen diren liburuak irakurtzera gonbidatu nahi genituzkeela ez haurrak eta ikasleak bakarrik, baita gurasoak ere.

HAUR TXIKIENTZAT LIBURU GOMENDAGARRIAK

• URTE BETETIK AURRERA :

OXENBURY, H.

Colección "Los libros grandes"
Barcelona: Juventud.

OXENBURY, H.

Colección "Los libros del chiquitín"
Barcelona: Juventud.

Haur txikiei buruzko informazio eta ezagupen sakona du Oxenburyk eta badaki beraien "mundua" agertzen batere infantilizatu gabe, estetika planteamendu garbiak mantenduz, didaktismo erraz eta merkeetan erori gabe. Horregatik, haurrentzat eta hain haur ez direnentzat aski egoera ezagunak marrazten trebe da Oxenbury, bere umorearen ukitu fin orekatuarekin batera.

CAMPBELL, R.

"Jarri zutik" bilduma
Donostia: Tartalo

LIONNI, L.

- Quand?
- Où?
- Qui?
- Quoi?
Paris: L'école des loisirs, 1984

• 2 URTETIK AURRERA:

FELIX, M.

Colección libros de ratón
Barcelona: Lumen

LERTXUNDI, A./OLARIAGA, A.

"Maria Goikoarenak" bilduma
Donostia: Erein

OXENBURY, H.

Colección "Mis primeros libros de imágenes"
Barcelona: Juventud

TXIKIEN MUNDUA.

Père Castorren albumak
Barcelona: Noguer

• 4 URTETIK AURRERA:

1. BALLESTEROS, Xose

Untxitxo txuria
Pontevedra: Kalandraka, 2000

4. NUÑEZ, Marisa

Kamila Zebra
Pontevedra: Kalandraka, 2000

2. GRIMM, Anaiak

Zazpi antxumeak
Pontevedra: Kalandraka, 2000

5. SENDAK, Maurice

Piztiak bizi diren lekuan
Pontevedra: Kalandraka, 2000

3. MAEYER, Gregie de Juul

Donostia: Ikastolen elkarte, 2000

• 6 URTETIK AURRERA:

1. LOBEL, Arnold

Sagu kontuak
Pontevedra: Kalandraka, 2000

2. AÑORGA, Pello

Bide magikoa
Bilbo: Aizkorri, 2000

• 8 URTETIK AURRERA:

1. LANDA, Mariasun

Joxepi dendaria
Donostia: Elkarlanean, 2000

2. LANDA, Mariasun

Sorgina eta maisua
Donostia: Elkarlanean, 2000

3. TXILIKU

Axa mixa zilarra
Donostia: Elkarlanean, 2000

4. TXILIKU

Kikik koko nahi du
Donostia: Elkarlanean, 2000

**5. ZUBIZARRETA, Patxi**

Magalik badaki
Bilbo: Anaya Haritza, 2000

7. KAZABON, Antón

Momolo
Bilbo: Ibaizabal, 2000

• 10 URTETIK AURRERA:**1. LINDO, Elvira**

Manolito laubegi
Madril: Alfaguara, 2000

2. ATXAGA, Bernardo

Chuck Aranbarri dentista baten etxean
Donostia: Erein, 2000

3. KAZABON, Antton

Lau haizetara kantari
Donostia: Elkarlanean, 2000

6. AÑORGA, Pello

Pottokoren otsoa
Donostia: Elkarlanean, 2000

4. KAZABON, Antton

Lanbro
Bilbao: Gero/Mensajero, 2000

5. LANDA, Mariasun

Amona, zure iholdi
Donostia: Erein, 2000

6. LINAZASORO, Karlos

Bota gorriak
Bilbo: Anaya Haritza, 2000

• 12 URTETIK AURRERA:**1. ETXANIZ ERLE, Xabier**

Geure ipinak
Iruña: Pamiela, 2000

2. ROWLING, J.K

Harry Potter eta sorgin-harria
Donostia: Elkarlanean, 2000

3. GARZIA GARMENDIA, Joxerra

Tunelaz bestaldean
Madrid: S.M., 2000

• 14 URTETIK AURRERA:**1. VERNE, Jules**

Munduari itzulia 80 egunetan
Donostia: Elkarlanean, 2000

2. KAZABON, Antton

Kanpai hotsak isiltzean
Bilbao: DDB, 2000

3. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier

Txakurraren alaba
Donostia: Elkarlanean, 2000

4. MINTEGI LARRAZA, M.A

A zer gaupasa!
Bilbo: Ibaizabal, 2000

• 16 URTETIK AURRERA:**1. MARÍN ESTRADA, Pablo Antón**

Bizitzaren gesala
Donostia: Elkarlanean, 2000

2. HERNÁNDEZ, Pau Joan

Stukaren alaba
Donostia: Elkarlanean, 2000

La función que puede desempeñar el libro en la educación de los niños es realmente importante. Y no sólo en la Educación Primaria o Secundaria, sino también en la Educación Infantil, es decir, cuando el niño tiene entre 0-6 años. No podemos olvidar que el placer de mirar o leer libros se inicia mucho antes que el aprendizaje sistemático de la lectura, es decir, cuando los niños comienzan a dar sus primeros pasos, saborean sus primeros sonidos, contemplan y distinguen las primeras imágenes.

Sin embargo, todo lo que encontramos en el mercado no es de calidad; hay de todo.

Con esta guía no sólo invitamos a leer a los más pequeños, sino también a todos los alumnos y lectores adultos.

Iturria:

- Haur txikientzako liburu-gida (0-7 urte) Irakasle eskolako Haur Liburu Mintegia. Eskoriatza 1994
- Haur eta gazte literatuta 2000. Irakur gida. Eskoriatza 2000



KONTSEILU ERRETOREKO PARTAIDEEN BERRIZTAPENA

Denok dakigun bezala, Kontseilu Erretorea dugu Ikastolako gestio orokorra aurrera atera ahal izateko dugun lan-talderik nagusia. Lan-talde honetan gurasoek, irakasleek, zuzendariak eta administrariak parte hartzen dute.

Gurasoei dagokienez, Kontseilu Erretorean 5 guraso ordezkari daude eta bakoitzak etapa eta ziklo hauek ordezkatzeko ditu:

- HH: JON ETXEBESTE
- LHko 1. zikloa: IMANOL BARRENETXEA
- LHko 2. zikloa: ARANTZA MANTEROLA, lehendakaria
- LHko 3. zikloa: ANTTON ARKA
- DBH: KLARA GUTIERREZ

Lehen Hezkuntzako 3. zikloari dagokionez, hau da, LH 5. eta 6. maileri dagokienez, ordezkaria aukeratu behar izan dugu 1999ko azaroaren 20an egindako Batzar Nagusian onartu genuen bezala.

Ezaguna da guztiontzat aukeraketarako erabilitako prozedura. Hori dela eta, bilera egin dugu boto gehien eskuratu zuen gurasoarekin, eta ANTTON ARKA gurasoa izan da aukeratua.

Langileei dagokienez, aurtengo ordezkariak hauexek dira:

- HH: LIDE MARTIARENA
- LHko 1. zikloa: INMA ITURRIA
- LHko 2. zikloa: ITZIAR BURUGAIN
- LHko 3. zikloa: KORO URIA
- DBH: JOSUNE SAIZAR

Ikasleen aldetik, berriz:

URTZI ARGIBAI

XABIER GARMENDIA



Antton Arka

RENOVACIÓN DE LOS MIEMBROS DEL CONSEJO RECTOR

Como sabéis el Consejo Rector es el órgano que se encarga de la gestión general de la Ikastola. Este Consejo está formado por padres y madres, profesores y dirección. La representación de l@s padres-madres como la de los profesores suele variar al cabo de varios años.

En el Consejo Rector hay cinco representantes de l@s padres-madres de la Ikastola, que representan a las distintas etapas de la siguiente manera:

- un padre de Ed. Infantil: JON ETXEBESTE
- un padre de Ed. Primaria (1er ciclo): IMANOL BARRENETXEA
- una madre de Ed. Primaria (2º ciclo): ARANTZA MANTEROLA, lehendakaria
- una padre de Ed. Primaria (3er ciclo): ANTTON ARKA
- una madre de la ESO: KLARA GUTIERREZ

En lo referente a la etapa de Ed. Primaria (3er ciclo), se ha elegido el representante de los padres-madres tal y como decidimos en la Asamblea General que se celebró el 20 de noviembre de 1999, ANTTON ARKA.

Los representantes del profesorado son:

- Ed. Infantil: LIDE MARTIARENA
- Ed. Primaria (1er ciclo): INMA ITURRIA
- Ed. Primaria (2º ciclo): ITZIAR BURUGAIN
- Ed. Primaria (3er ciclo): KORO URIA
- DBH: JOSUNE SAIZAR

Los representantes de l@s alumn@s son:

- URTZI ARGIBAI
- XABIER GARMENDIA



DBHKO KOMISIOA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Komisionan biltzen dira, besteak beste: DBH 2. zikloko bi ikasle-delegatu, irakasle bat, guraso bat eta zuzendaritzako ordezkari bat.



Estibalitz
Etxeberria



Ekain
Perez



Pili Lizaso



J. M. Zapirain



Lupe
Mendigutxia

Gurasoen aldetik, talde bat jarri da martxan eta talde hau hilabetero biltzen da astelehenetan 18:00etatik 19:00etara.



Monika
Ramirez



Marisa
Gonzalez



Junkal
Kazabon



M. Asun
Rodrigo



José Ramon
Arabolaza

DBH 2. zikloko komisió honen egitekorik nagusia funtzionamendu araudia eztabaidatu, osatu, onarpena bideratu eta betetze maila kontrolatzea da.

Komisió hau azaroaren 19an bildu zen lehengo aldiz eta hortik aurrera, hilabetero biltzen da astelehenetan arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Nolanahi ere, edozein partaidek egin dezake deialdi berria Zuzendaritza taldeari adierazi ondoren.

Erabaki bat hartzeko garaian, modu honetan banatu ditugu botoak: ikasleek 2 boto, irakasleek 1, eta gurasoek 1. Zuzendaritzako ordezkariak ez du botorik izango. Nolanahi ere, ahal dela erabakiak aho batez hartuko dira, bozketara iritsi gabe. Erabaki ezineko kasuetan, ikastolako organo gorenetara joko da.

La Comisión de la ESO pretende impulsar la participación de l@s alumn@s de dicha etapa como estamento de la Ikastola que son, para que den a conocer sus opiniones en temas que les afecten directamente.

Participan en la misma dos alumn@s, una profesora, un representante de l@s padres-madres y un miembro de dirección.

Desde el 19 de noviembre, mensualmente, se reúne dicha comisión los lunes a las 19:00 de la tarde.

La función principal de esta comisión es ser un foro de discusión y aprobación del reglamento, incluido el control de su cumplimiento.

La comisión se reúne mensualmente. Cualquier miembro puede convocar una nueva reunión, después de hacer-se saber a la dirección.

A la hora de tomar decisiones, los votos se dividen de la siguiente manera: 2 votos para l@s alumn@s, 1 voto para el profesorado y 1 voto para l@s padres-madres. El miembro del equipo directivo no podrá ejercer el voto. De todas formas, se intentarán tomar las decisiones por unanimidad, sin tener que llegar a la votación. Cuando no se pueda tomar una decisión consensuada, se recurrirá a los órganos máximos de la Ikastola.



Oiartzo Ikastolaz, hizketaldia



Inaxio Retegi, Haurtzaro ikastolako irakaslea, Oiartzo Batxilergo ikastola errotik ezagutzen du. Izan ere, duela bost urte Haurtzaro eta Orereta ikastolen artean martxan jarritako proiektuan hasieratik parte hartu zuen irakasle lanetan. Gaur egun Oiartzoko ikasketaburu lanetan murgilduta dabil, eta horren aitzakian, honako hizketaldia egin dugu.

1. Noiz sortu zen Oiartzo Batxilergo ikastola eta zeintzuk ziren ikastola hau sortzeko helburuak?

97/98 ikasturtean jarri zen martxan Oiartzo Batxilergo ikastola, Oarsoaldeari euskarazko Batxilergoa eskaini ahal izateko gutxienez bi ikastolen artean (hirugarrenarekin ere bide irekia utziz).

2. Haurtzaro Ikastolatik hiruzpalau irakasle aritu zarete Oiartzon lanean.

Nola konpontzen zarete eta nola baloratzen duzu lan hori?

Bi zentroetan aritu beharrak trasladoan denbora inbertitzera behartzen gaitu. Bestalde, bi lan esparrutan ari- tzeak perspektiba zabala eskaintzen digu, ikas eta irakats prozesuen ikuspegi osatuagoa.

3. Aurtengo ikasturtean irakasle lanetaz gain, ikasketa burua zaitugu Oiartzon. Zein egitasmo nagusi dituzu aurtengo ikasturterako?

Lehenengo irakasleekin elkarlanean ari nahi dut (azken finean, beraien lana laguntzeko eta guztion artean etengabe- ko hobekuntzan segitzeko dagoela pentsatzen dut Ikasketa Burua). Honetaz gain, apendizaiia signifikatiboaren onu- rak saldu nahi nituzke irakasle eta ikasleen artean: instrukzioan ikasgaien barne koherentzia logiko esanguratsuak eta apendizaiian ikasleen aldeko jarrerak elkarrekin lan eginez hobekuntzaren oinarri jotzen ditut eta bi alderdi hauek bultzatzen arituko naiz elkarriketari bide emanez eta argudioen autoritatean (onena, aurrera) sinetsiz. Ez dira uto- pia guztiak hil; errealitate bihurtu daitezkeen utopiak ba daude. Bai eta heziketa munduan ere.

4. Haurtzaro ikastola, Orereta Ikastola eta Oiartzo Batxilergo ikastolaren arteko lokera nola bide- ratzen duzue?

Aurten hiru zentroen artean Koordinazio Taldea osatu dugu elkarrekin egin genezakeena elkarrekin egiteko (beti besteen esparrua erabat errespetatuz, noski). Zenbait proiektu martxan jartzen ari gara eta ikuskizun da noraino iritsiko garen. Ikasturte bukaeran ebaluatuko dugu egindakoa eta orduan zuzenago jakingo dugu zer egin dugun eta zer gelditzen den egiteko.





5. Zer nolako harremanak dituzue ikasleekin?

Xelebrea da heziketaren mundu honetan gertatzen dena gai honekin: urtero zurrumurru eta esames ugari iristen zaizkigu. Asko exigitzen omen dugu, lan asko egin behar omen... Ikasle izandakoak bisitan etortzen direnean (askotan), ikusmira pixkat lortzen dutenean... bizitakoa nola ebaluatzen duten ikusita ezin izaten dut ulertu nondik nora sortzen diren halakoak. Egia da: lana egin beharra dago (ikasteko, ikasi egin behar da; hau ez da "sillan eseri eta...". Ekin gabe inori ez zaio jakintza zerutik etortzen. Baina bestalde, ez dut oraindik ikasle izandakorik ezagutzen ahalegin egokia jarri eta beharrezko prestakuntza gabe geratu denik. Honetaz gain, ikusgarria da jolasgarai guztietan irakasleak ikasleak endanaka (sailean) galdera zehatzak erantzuten, ulermen pertsonalari bideak zabaltzen. Klaseen artean ere bost minutuko atsedeen unea edo izaten dugu eta askotan hurrengo irakaslea etortzen zaigu gela barnera ikasleen galderak atenditzen ari garenean. Baina galderak eduki egin behar dira eta horrek ikaslearen aldetik ulertu nahi ahalegina eskatzen du; galderarik ez duenak ez du erantzunik nahi. Horrela da bizitza.

6. Zer nolako maila akademikoa lortzen dute ikasleek Oiartzon?

Azken urteetako maila akademikoa ona izan da: ikasle gehienek gerora ikasi nahi izan dutena ikasteko sarrera notak eskuratu dituzte. Azken ikasturtean selektibitatea aurkeztu diren guztiek aprobatu dute. Hala ere, nire ustez, ez da hori bakarrik garrantzitsua: behin batean edo bestean hasi ondoren gero eusteko, lana elegante aurrera ateratzeko behar da prestakuntza (ez arrastaka ibiltzeko). Alde honetatik ikasle izandakoak bixitan etortzen zaizkigunean oso pozik uzten gaituzte: aurtan bertan aurreko ikasturtean gurekin hemen aritutako ugari etorri da eta berdintsu lana eginda arazorik gabe aurrera doazela entzuteak animoa ematen du: heziketa ez da inoiz bukatzen eta segi aurrera gaztiak!

7. Oiartzo Batxilergo ikastolara nondik etortzen zaizkizue ikasleak?

Ikasle gehienak Haurtzaro eta Orereta Ikastoletatik etortzen zaizkigu, normala den bezala. Hala ere, batzuk Langaitz Ikastolatik, Elizalde Herri Eskolatik... etortzen dira. Hemengo "txangoa" egin ondoren, esperientziak merezi izan duen galdetuko diegu eta agertuko dizuegu, nahi izanez gero noski.

8. Zein eskaintza akademikoa egiten duzue Oiartzon?

Bi batxilergo modalitate eskaintzen ditugu: Giza eta Gizarte Zientzietakoa eta Natur eta Osasun Zientzietakoa. Azken hau Batxilergo Teknologikoko hainbat arlorekin osatzeko aukera ere eskaintzen dugu eta ondoren edozein karrera unibertsitario edo goi mailako ziklo formatiboko ikasketetara pasatzeko bide guztiak zabalik gelditzen zaizkie ikasleei (ikasi, prestatu eta aprobata, noski). Ez ahaztu: ez da soilik garrantzitsua iristea, gero jarraitzeko kapazitatea (prestatua) egon behar da. Horretan ez da gure lana aski: ikasleak zer esan fundamentala du, hain zuzen. Esan behar orain arte behintzat ikasleek eskaintakoarekin eta irakasleok lantzen lagundutakoarekin emaitzak beraiek bakarrik kantatzen dutela: oso gutxi agertu zaizkigu primeroko bigarren edo hirugarren urtea egiten ari direla esanez. Seinale ona: nahi dutena lortzeko gaitasunak (gogoia eta ekina) desarrolatu dituzten ikasleak bidali ditugu.

9. Zer behar duzue zuen lanean eraginkor jarraitzeko?

Estimaten dut galdera hau egin izana. Erantzunak bi alde dituela pentsatzen dut: alde batetik, gure lanarekin jarraitzeko ilusioa elikatzen jarraitu beharra daukagu; bestetik, lan hori nori eskainia, ikasi nahi duten ikasleak eta gure lanean sinetsiko duten ikasle horien arduradunak, gurasoak behar ditugu. Aurrera jarraitzez, biak ezinbesteko eta beharrezko.

10. Zer lanetan ari zarete alor honi begira?

Inguru osora gure eskaintza ahal dugun gehiena zabaltzen ahalean gabiltza: gure ustez eskaintzak merezi du eta zabaltze eginahal honetan laguntzak jasotzeko ere prest gaude. Edozein kezka edo zerbaiten jakinmina duenari gurekin harremanetan jartzeko esango genioke. Bere helbidea edo telefonoa emanez gero, argituko genizkioke ahal ditugunak gutxienez. Gaur egun, gainera, teknologia berriak uste adina aukera eta oso azkarrak jarri dituzte gure esku eta aprobetxatuko genituzke. Bada ez bada ere, hara gure helbide elektronikoak: oiartzo@ikastola.net / iretegi@haurtzaro.ikastola.net

Inaxio Retegi Oiartzoko ikasketaburua



Inaxio Retegi, profesor de Haurtzaro Ikastola, conoce desde sus inicios el proyecto de Oiartzo Batxilergo Ikastola. Comenzó como profesor del centro y en este momento es jefe de estudios del mismo, por lo que conoce muy de cerca la realidad de este proyecto. Este proyecto se puso en marcha en el curso 1997/98 gracias a la colaboración de Orereta y Haurtzaro ikastola.

Mediante esta entrevista hemos podido conocer un poco mejor los entresijos de esta etapa tan importante en la enseñanza actual. No podemos olvidar que el 85% de los alumnos que terminan la ESO, continúan después en el bachillerato.

La coordinación de los tres centros (Orereta, Haurtzaro y Oiartzo), este año también se mantiene entre los grupos de Dirección y coordinación, para así reforzarla. También se ha establecido un calendario de trabajo.

En la pregunta referente al tipo de relaciones entre los alumnos y el profesorado, Inaxio Retegi nos señala que aunque existan muchos rumores entre los alumnos de que la exigencia en los estudios de Oiartzo es muy alta, la realidad es que muchos alumnos que han finalizado allí sus estudios han acudido a la Ikastola al comienzo de este curso escolar para dar gracias, así como para compartir y mostrar su alegría sobre los resultados académicos que han logrado. Ésta es la señal de que, aunque haya sido costoso, ha merecido la pena: "nos hemos esforzado en afrontar las dificultades, y todos, incluidos los profesores, hemos aprendido mucho".

Por otra parte, Inaxio nos recuerda que la lección más importante ha sido el buen resultado final: casi todos los alumnos han superado todo; casi todos los alumnos han salido de la Ikastola llevando en la mano la llave para abrir la puerta de los estudios que deseen continuar.

Para finalizar, Inaxio nos explica la oferta académica de Oiartzo: se imparten las dos modalidades de bachillerato: la modalidad de Ciencias Sociales y Humanidades y la modalidad de Ciencias Naturales y Ciencias de la Salud. En esta última modalidad se imparten asignaturas optativas válidas para carreras universitarias tecnológicas. De esta manera, abrimos las puertas a los alumnos que desean cursar una carrera tecnológica.

Inaxio Retegi nos brinda la oportunidad de conocer in situ este centro de bachillerato, y desde allí contrastar las dudas que podamos tener sobre esta etapa.



UR JOLASAK:

Ingurune fisikoaren ezagutzarako esperientzia.



Joan den ikasturte bukaeran, ekainean hain zuzen, eguraldi onarekin batera, batetik bi urteko haurrentzat ur jolasak antolatu genituen.

Jarduerak kanpoan burutu ziren. Itzaletan tamaina eta edukiera desberdineko ontziak kokatu genituen: erdian piszinatxoa, honen inguruan palanganak, hondartzarako baldeak, plastikozko katiluak e.a.

Ontzi hauetako batzuk ur hotzez eta besteak ur epelez bete genituen. Ondoren haurrak jolasari ekin zioten. Esperimentazioa maila hauetan burutu zen:

Gorputzean: Gorputza busti eta bertan urak sortzen dituen sentsazioak sumatuz.

Zer gertatzen da eskuak, hankak, sabela, bizkarra bustitzen baditugu?

Eta gorputz osoa bustiz gero?

Kanpoko tenperatura kontutan izanik ur hotzak eta ur epelak sorturiko sentsazio.

Uraren zenbait propietate tresnen bidez ezagutuz: Ura ontzi batetik bestera bota. Hustu eta bete. Bete eta hustu.

Zer gertatzen da ontzi txikitik handira botaz gero?. Eta handitik txikira?

Eta ontziak zulotxoa badu?

Ingurunean:

Zer gertatzen da ura lurrera ixuritzen denean?

Jaso al daiteke?

Eta baratzean ixuritzean?

Goizean lurra bustita utzi dugu. Nola dago arratsaldean?

Esperimentazioa era librean burutu zen, norberaren gogoia erritmoa, nahia errespetatuz. Era honetan, gorputza eta ingurunearen ezagutza zertxobait zabaldu edo aberasteko aukera eskeini nahi izan genien, jolasa eta plazeraren bidez. A ze gozamena!

Mari Joxe Arozena
Begoña Rezola
U.I.P.ko irakasleak





INTZA MENDIBURU*ri* elkarrizketa

-Tx: Kaixo, Intza. Hasteko ager iezaguzu zein izan den orain arte zure ikasle IBILBIDEA.

I: Ni Haurtzaro ikastolan ibili nintzen 16 urte arte. Ondoren Batxilergoa egin nuen Oiertzo Batxilergo ikastolan eta gaur egun Biologia ikasten ari naiz, Zientzia Fakultatean, Bilbon.

-Tx: Batez ere, perspektibak ematen duen ahalmen horretatik kontu iezaguzu zer izan zen zuretzat Batxilergoko zentrotik pasatzea.

I: Egia esateko, lehen lehenik harremanak etortzen zaizkit gogora. Lagunak, irakasleak...Etxean sentitu nintzen. Momentuan ez zara gehiegi konturatzen, baina gero, kanpora ateratzen zarenean, orduan ohartzen zara benetan nolako suertea izan duzun. Gu orain 140 pertsona gaude klase berean; ez dugu harreman zuzenik irakasleekin. Alderantziz, Batxilergoko irakasleekin harremanak oraindik diraute, eta badakizu oraindik ere zerbait behar duzunean hor dituzula.

Lan metodoari begiratzen diodanean, ni zientzietatik joan naizenez esan beharra daukat ikastolan lortu dudan oinarria sail horretan oso baliagarria izan zaidala. Batxilergo urteetan jasotzen dituzun kontzeptuak ongi barneratu eta ulertzeak, gerora begira asko laguntzen ditu.

-Tx: Zer esango zenioke ikastera letorkeen bati?

I: Momentu onak eta txarrak pasa behar izaten direla, batez ere proban jartzen zaituztelako. Baina nire iritziz, beharrezkoak eta baliagarriak dira pertsona bezala garatzeko. Bietatik ikasten duzu.

-Tx: Beno, mila esker, Intza, gure galderei erantzuteagatik eta segi aurrera zure bide horietan.

I: Ez da ezergatik eta eskerrik asko zuei guztiagatik.



AGINTEA

Ziurrenik gizakia gehienetan nahaste garaietan bizi izan da. Ziurrenik argialdiak laburrak izan dira. Gaur egun ere nahiko lainopean gabiltzala iruditzen zait. Ikasle izatea, irakasle izatea, guraso izatea ere nahiko itzalean edo agian ilunpean dabilela pentsatzen dut.

Gauzak horrela ARGI BILA testu idatzietan (batez ere, entsegu filosofiko eta pedagogikoetan, pedagogikoetan esaten da orain) ibiltzea maite dudala ezin dut ukatu. Urteak atzera eta aurrera.

Bada denbora agertzera noakizuenaren biran hausnarketan nabilela, eta azken aldi honetan lau edo bost aldiz aztertu ondoren, irakurri nahi duenarentzat laburpena egitera saiatu naiz, hain zuzen. Sar gaitezen harira:

Hitz lodiak izan dira; autoritarismoa autoritatea den edo boterea duen (edo biak batera) pertsonak autoritatearen edo boterearen (edo bien) erabileran abusua da: agintekeria. Boterea besteak ekintza edo portaera jakinera behartzeko koakzio indarrarekin erlazionatzen dugu. Absolutua, legearen baitakoa, legitimoa...nahi den bezalakoa. Jerarkiak gizartearen funtzionamendu hobeari so erantzukizun sozialen mailaketa du erreferentzia. Jerarkia kontzeptua botere kontzeptuarekin lotuta dago. Baina ez beti, tamalez, autoritatearekiko korrelazio bera segitzen: ez da nahita ez, automatikoki, autoritate gehiago edukitzen jerarkia mailan gora egin ahala.

Idealena horrela izatea litzateke, hots boterea autoritate gehien denak bideratzea. Kasu horretan boterea autoritaterik eta autoritaterako kontrolatu, mugatu eta ziurtatuko litzateke. Ez da hori, ordea, gehienetan gertatzen. Kontrakoarekin nahi baino gehiagotan egiten dugu topo: boterea beharrezko lukeen autoritatearen gainean eraikia ez dagoenean zapalkuntza (edo areago, tirania) bilaka daiteke.

Konponbidea erraza dirudi: autoritatea eta boterea elkarren eskutik joan daitezela eta beti boterea suposatzen duen jerarkia sail bakoitzean dagokion autoritate aski agertzen duenaren esku egon dadila. Autoritatea, bere "jatorrizko" adieran <<auctoritas>>, ez baitzen botereari atxikia joaten. Zaharren (<<senes>>, sena etorria zutenak?), Senatuaren prerrogatiba baitzen; eta Senatuak ez zuen botererik (<<potestas>>). Bere botere bakarra morala eta kontsiliarra (aholku ematekoa) zen: esperientzia luzeagoa errekonozitzen zitzaion eta ondorioz <<res publica>>-rako zenbait gaietan konpetentzia (itzal) handiagoa. Autoritatea beraz, batez ere ahaleginaren eta ekitearen ondorio eskuratutako (lortutako) kualitatea (nolakotasuna) da.

Honetaraino iritsitakoan (allatutakun sango genuke) merezi du nabarmentzea bai izendapenez edo botazioz hartutako boterearen kudeaketan, eta bai eta ere eskuratutako autoritatean ezinbesteko OSAGAI ETIKOAK beti gidari izan behar duela: kontzienteki (jakitun, jakinaren gainean) eta ahal izanik (de facto), helburuak LAGUNTZEA izan behar duela. Beste hitzetan, zerbitzu direla eta ZERBITZUAN egon behar dutela: besteen garapenaren SOSTENGU.

Eta azkenik, zertan dira, ba, autoritatea eta boterea heziketaren munduan? Zertan ikasleen, irakaslearen, gurasoen botere eta autoritatea? Noraino? Nola? Nolakoa, Zertarako...Pena da, baina luzetxo goaz; honen erantzunak hurrengoan izan beharko du (inork beste kapitulurik egon dadin nahi duela adierazten badu, noski; gainerakoan bakarrik jarraitu beharko du).

P.D.- Ikastolako sareko zerbitzarian OROKORRA sailean PENTSAMENDUA deitu gunea ireki da aurtengo ikasturtean. Bertan parte hartu nahi baduzu, Txinpart erredakzio gunera ager ezazu zure desioa (teknologia berriak erabiliz), eta kasu honetan artikulua honen edukiak era konstruktiboan kritikatu (zure kritikak argudiatuz).

e-posta

mzubizarreta @haurtzaro.ikastola.com




ALBAITARIARI ELKARRIZKETA

Inguruko animaliak edo etxabereak izan dira hiruhilabete honetan landu dugun gaia.

Abereak nola zaindu behar diren hobeto jakiteko aditu batekin elkarrizketatu gara. Eskarne Irastorza albaitariarekin.

Bera ere hain xuxen, gu orain bezalaxe, Haurtzaro ikastolako ikasle izana. Ondoren Zaragozako Unibertsitatean albaitari ikasketak burutua eta elikaduran espezializatua.



Gure eskerrak Eskarne Elkarrizketa honen bidez eman dizkiguzun argibideengatik. Zuri esker gehixeago ikasi dugu.

3. mailakoak



HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8
1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								

Ezkerretik eskuinera:

1.- Denbora librea. Alderantziz lehenengo kontsonantearen izena. 2.- Gizonaren lagunik onena. 3.- Alderantziz ibaia zeharkatzeko. Neu. 4.- Bustia. Infusioa. 5.- Alderantziz emakume izena. Bokala. 6.- Lugo. Jateko ondo ez dagoena. 7.- Bokala. Potasioa. Kontsonantea. Galiziako matrikula. 8.- Bartzelonako matrikula. Azeria.

Goitik behera:

1.- Musika tresna. 2.- Ospitaletan agertzen dena. Kontsonantea. 3.- Etxe batean goiko aldean dagoena. Potasioa. 4.- Animaliak gordetzeko lekua. Azkena. 5.- Auzo hasiera. Zabala ez dena. 6.- Röntgen. Lehergailua. Kontsonantea. 7.- Adi. Alderantziz Bizkaian ile. 8.- Baieztatzeko. Mara-mara egiten du.



Aurkitu itzazu 5
diferentziak eta jar ezazu
X bat gainean.

X X X X X

EMAITZA

aisa galtzak Goizean
ipurdian eguerdian zaizkik
azak eta porrusalda kabituko


EMAITZA





LABURPEN TENTATZAILEA

- Titulua: Margolana
- Egilea: Igor Elortza
- Argitaletxea: Alfaguara



LABURPENA

Institutuko irakasle batek margolan ospetsu bat erakutsi die esanez oso ospetsua dela eta Parisera emango dutela. Bi ikaslek bozetoa lapurtuko dute, eta ondoren arazo asko gertatuko zaizkie bozetoarekin. Baina zer?

IRAKURRI

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiertzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipuzcoa 2-3º dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



Biok ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones

ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN Km. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Poligono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250

Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AMENABAR

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-424/2/96

SEAT

Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Bianditz, C.B.

Txapa eta pintaketa
Diagnosia
Salmetak
Mekanika

Altzibar auzoa - Artikutza Bidea z/g • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 08 46 - 943 49 12 23 • Faxa: 943 49 08 46

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA